

Erref. kodea: LAF-108-954

Izenburua: Gutuneria: ZUBIALDE,
Manuel

27
26
25
24
23
22
21
20
19
18
17
16
15
14
13
12
11
10
9
8
7
6
5
4
3
2
1
0
Oct- I-1968 .

Andre Hospital , jauna .

? ESKUALDUNAK ZER DIRA ?

Ameriketarat jin nintzan mila bederatzi-ehun-eta berrogoita-zortzian, Eskual-Herri maite hortarik . Hogoï hurthe zor lekutik hurun, bainan Eakual-Herriaren amodioa bethi biotzaren erdian deraukat.

Hogoi hurthe hotan, galde bat ardurara egina izan zaut, emengo jende hotas Eskualdunak zer dira ? galde pisua , gausa hunen gainean argitua ez den batentzat, errapostu xuxen-baten emaiteko.

Nohis dira , Eskualdunak ezagutuak izan ? Nun zuten astapena ? Zertarik egina da zuen lenguai-a ? Nolas da arrasa hori , hoin diferenta bertze Europako jendetarik ? ZER gatik dira Eskualdunak , bi Erresumen artean partekatua ? Zer dira zuen Erligionea , usai-ak , industriak , ect--ect--ect .

Nik zerbeit gisetarat emaiten dehet , neure jakitatearen ara-berako ixtorioa , emengo kasetetan (magazine) horietan irakurtu artikulu batzuetarik ikasi dutanas, Nahis jende hok kontent gelditzen diren zerbeit ikasi dutela , gogoetan egoiten nahis , gu , Eskualdun haurak , nolase ez zaukun erakutzia izan gure arrasaren ixtorio hori .

Aitortu behar dut ez nahisela ni gizon argitua , astetik finitzerat, sei hurthe ditut eskolan pasatu . Neure orroitzean , ez zaut gogoratzen nehorek indarik egiten zuten dembora-etan gaster argitazun horen erakustez . ?Ote nintzan ni lo egoiten ?

Zegur nahis Eskual-Herrian badirela liburuak gure arrasas mintzo direnak , eta ere gizon argituak ixtorio horen gainean . Neure idurikotz ez laiteke nehoren kalte-etan gure buruzagiek indar bat egin balezate , Eskualdun gusiek ikas desagun hoin baliosa den gausa bat .

Es dut dudarik egiten , ni iduria frango badirela mundu zabalean eta Eskual-Herri barne horietan . Ezdut neure jakitate eskasa gure buruzagien gain essari nahi , bainan ba nobeiten hutz haundia dela .

Iduritzen zaut Herria kasetan , nohis-tenka artikulu batzu , gauza huntas ager-tarasteas denen honetan , Eskual-Herriaren , eta partikulaski gasten honetan litake-ela, eta gu , sahar hok ere serbeit ikas ginezake , Eskualdun gaste horiek mundu zabalerat joaiten direnean eta arrotsek galde hau eginen diotelarik , burua goraki eta ahalgerik gabe erraiten ahalko dute , horra Eskualdunak zer diren ;

Eskuara galtzerat ari dela; Elgar argituz , ez ote dezakegu salba ?

Nehor ofentzatu gabe , gelditzen nahis denen adixkide adixkide .
Mil-esker jauna, hitz hohon leitzen artu duzun denboraz .

Arrosa-tar batek , New Mexicotik .

P S Atzegin nuke jakiten arasten baninduzu , nun eskuratzen ahal-nuken Eskual - Herriko ixtorio-are liburua .

Manuel Zubialde
Box, 338, Mesilla Park ,
New Mexico. U S A .
88047 .

Manuel Zubialde